El Sr. Alcalde manifiesta que ya ha contestado a la pregunta del grupo Popular, y al Sr. Almansa le indica que es triste que vincule el acierto de la política del grupo Socialista al nivel de enfado que genere al Alcalde. Manifiesta que el equipo de Gobierno no comparte ese criterio, ya que no trabaja para enfadar a ningún grupo sino que trabaja en positivo y en clave de acuerdo. Manifiesta también que si el grupo Socialista tiene tan clara su postura y estima que es la opinión mayoritaria de los vecinos, no entiende porqué tiene miedo a generar un proceso de participación oficializado, que sólo se puede entender esa postura desde un partidismo negativo. Recuerda que el equipo de Gobierno tiene relación con el tejido asociativo, incluido el de Andra Mari.

Marisa Arruek berriz esan du, baldin

La Sra. Arrue insiste en que a menos

euskarazko berbaldian ez badu erantzun (aldi bereko itzulpenik ez dagoenez, askotan eskatu den arren, ez daki zehazki zer esan duen), gaztelaniazkoan behintzat ez dio erantzun ea Ereagan egin asmo duen proiektuan berdin jokatuko duen, parte-hartzearen aldetik. Agertu du ez dakiela zergatik dion alkateak hainbesteko beldurra herritarrek Ereagako proiektu horri buruz izan dezaketen iritziari, eta eskatu dio hausnar dezala talde popularrak eskatzen diona berak talde sozialistari, geltokiaren izena dela eta, eskatzen dion berbera dela, eta batean eta bestean desberdin jokatzea inkoherentzia handia dela. Esan du ez zaiola erantzun ere ea EAJk eta gobernu taldeak irizpidea aldatu duten mozioen ondorioei buruz. Bukatzeko, adierazi du talde popularrak ez duela onartuko Getxoko udalerrian lehen mailako eta bigarren mailako herritarrak sortzerik, parte hartzeko prozesuei loturiko kontsultak batzuei eginez eta beste batzuei, berriz, ez.

que haya respondido a sus preguntas en la intervención en euskera, que al no existir traducción simultánea pese a haber sido requerido muchas veces, no conoce exactamente su contenido, al menos en la intervención en castellano no le ha contestado a las preguntas de si va a dar el mismo tratamiento de participación al proyecto que se pretende hacer en Ereaga, indicándole que desconoce por qué tiene tanto miedo a la opinión de los vecinos respecto a ese proyecto de Ereaga, y le pide que reflexione acerca de que el grupo Popular le pide al Alcalde lo mismo que él está pidiendo al grupo Socialista respecto a su postura con el nombre de la estación, y actuar de manera diferente supone un alto grado de incoherencia. Manifiesta que tampoco le ha contestado sobre si ha cambiado el criterio del PNV y del equipo de Gobierno acerca de los efectos de las mociones. Finaliza manifestando que el grupo Popular no va a consentir que se generen ciudadanos de primera y de segunda en el municipio de Getxo en función de la existencia o no de consultas de procesos participativos.

Luis Almansak esan du alkatea Iñaki Zarraoa aurreko alkatearen ohitura txar berberetara lerratzen ari dela, horietako bat delarik bere taldeko bozeramalea itzali, eta berak zuzenean berba egitea. Berriz ere adierazi du mozioa dela talde sozialistak bere egin duen herritarren aldarrikapen bat, eta horrek frogatzen duela EAJk ez duela sinesgarritasunik Andra Mariko herritarren artean, eta, horregatik, haiek oposizioko taldeei helarazten dizkietela euren proposamenak, eta egoera horrek haserrarazten duela alkatea, eta hitza hartzera bultzatzen. Argitu du alkateak ez dituela gauzak diren bezala azaldu,

El Sr. Almansa indica que el Alcalde está cayendo en los mismos vicios que el anterior Alcalde Sr. Zarraoa como es anular al portavoz de su grupo interviniendo él directamente. Insiste en que la Moción lo que aporta es una reivindicación de los vecinos asumida por el grupo Socialista, y esto evidencia que el PNV no tiene credibilidad respecto a los vecinos de Andra Mari, y por ello los vecinos trasladan sus propuestas a los grupos de la oposición y esta situación es la que enfada al Alcalde y le obliga a intervenir. Indica que el Alcalde en su intervención explica las cuestiones de manera

eta horregatik talde sozialistak berriz berba egitera behartuta aurkitzen dela, nahasteak sor daitezen saihestearren.

sesgada, lo que está obligando al grupo Socialista a tener que intervenir constantemente para evitar que se generen confusiones.

Alkate jaunak hitz egin du argitzeko, bakarrik, ezin direla nahasi gobernu taldea eta alkatea udal talde politikoarekin, mozioak aurkezteari dagokionez, eta zehaztu du, halaber, orain arte 2007ko azaroko osoko bilkurako Udal Araudi Organikoari buruzko erabakien inguruan dagoen epai bakarrak alkatearen tesien alde egin duela.

El Sr. Alcalde interviene únicamente para clarificar que no se puede confundir el equipo de Gobierno y el Alcalde con el grupo político municipal, en razón al planteamiento de las Mociones, y también indica que en este momento la única sentencia existente sobre los acuerdos del Pleno extraordinario de noviembre del 2007 sobre el Reglamento Orgánico municipal ha dado la razón a las tesis del Alcalde.

Eztabaida amaitu, eta mozioa bozkatu da. Hauek izan dira emaitzak: aldeko 21 boto (EAJ, PP eta EB/B) eta aurkako 4 (PSE-EE).

Finalizado el debate, se somete la Moción de referencia a votación, que obtiene el siguiente resultado: 21 votos a favor del PNV, PP y EB/B y 4 en contra del PSE-EE.

Horrenbestez, honako hau erabaki da gehiengoz:

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"EAJ-REN MOZIOA, BIDEZABALEN ETA BERANGOREN ARTEAN KOKATUKO DEN GELTOKI BERRIAREN IZENDAPEN OFIZIALARI BURUZ

"MOCIÓN DEL EAJ-PNV SOBRE LA DENOMINACIÓN OFICIAL DE LA NUEVA ESTACIÓN DE METRO UBICADA ENTRE LAS DE BIDEZABAL Y BERANGO.

Bilbo Metropolitarrean Getxo da metro geltoki gehien duen udalerria, bertako sei geltokiak kontuan hartzen baditugu eta hiriburu bizkaitarra alde batera utzita.

Getxo se erige, con sus seis paradas, en el municipio con el mayor número de estaciones de Metro del Bilbao Metropolitano, dejando a un lado la capital bizkaitarra.

Beraz, metroa getxoztarren eguneroko bizitzaren erreferente eta ardatz argia da; izan ere, udalerrian zehar herritar guztiek dute maila bikaineko komunikabide publiko bat erabiltzeko aukera, bertako metroa zerbitzu bikaina baita, kalitatea eta azkartasunagatik, eta ez dugu ahaztu behar, jende masen

El metro constituye por tanto un referente claro y vertebrador de la realidad cotidiana de los/las getxoztarras que disponen de esta forma, y a lo largo del discurrir de nuestro municipio, de la posibilidad de acceder a un medio de comunicación público de primer orden por la calidad

garraioari buruz gagozkiola, Europa eta mundu mailan erreferentzia ere badela.

y rapidez de su servicio, al punto de que ya se ha erigido en referencia europea y mundial en lo que al transporte de masas se refiere.

Horiek horrela, Bizkaiko Garraio Partzuergoa eta Eusko Jaurlaritza egun Maidaganeko metro pasagunea lurpean sartzeko eta desagerrarazteko lanak garatzen dabiltza, bertakoek aspalditik eskatu izan baitituzte, eta hainbat jarduera aztertzen ari dira, besteak beste, Getxo-Andra Marin geltoki berri bat jartzea; eta horrela, aurretik aipatu ditugu sei horiei beste bat gehitzea.

En este contexto, el Consorcio de Transportes de Bizkaia y el Gobierno Vasco están desarrollando en la actualidad las obras de soterramiento y correspondiente eliminación del paso a nivel de Maidagan, largamente solicitadas, que contemplan además, entre sus diversas actuaciones, la habilitación en Getxo-Andra-Mari, de una nueva estación de metro que se sumará por tanto a las seis estaciones en funcionamiento en nuestro municipio.

Horrela, 2011 urtearen erdialderako-edo, Getxo-Andra-Mariko auzokideek argi ikusiko dute bertako hiri-parajeak eta batez ere, euren bizitza kalitatea nabarmen hobetuko direla, inguru horretan metroa lurpean sartzea errealitatea da-eta, beraz, aldaketa egin ondoren ez dira zain egon behar izango metroko pasaguneaz beste aldera joateko, eta inguru horretatik ibiltzeko segurtasuna erabatekoa izango da; horren ondorioz, guztion aisialdirako parke handi bat irabaziko du auzo horrek, metroa lurpean sartzeak libre utziko duena ixteko lekuan kokatuko dutena.

De esta forma, para mediados del 2011, los vecinos y vecinas de Getxo-Andra Mari verán como su paisaje urbano y sobre todo su calidad de vida, mejorará notablemente, en tanto el soterramiento del metro en la zona será una realidad, con lo cual ya no tendrán que esperar para cruzar al otro lado de las vías del metro y la seguridad para el tránsito de la zona será máxima, y como consecuencia del mismo se recuperará además para el barrio un amplio parque de ocio y esparcimiento para todos/as que será el ubicado encima de la planchada que cubrirá el metro soterrado.

Gainera, lehen adierazi dugun bezala, beste metro geltoki bat jarriko da Bidezabalen eta Berangoren artean, eta metroa auzokideengana eta bertan izango den garapenera hurbiltzeaz gain, 300 bat ibilgailu sartzeko gomenduzko aparkaleku bat egingo da, auzoko beharrei aurre egiteko, eta horri esker, egun Uribe-Kostatik etorri, Getxon sartu eta 1 lineako frekuentziarik onenen bila dabilen

A todo ello se unirá, como señalábamos previamente, la habilitación de una nueva estación de metro, que se ubicará entre la de Bidezabal y la de Berango y que, además de acercar el metro a todo el barrio y a su desarrollo futuro, contemplará igualmente la habilitación simultánea de un nuevo parquing disuasorio para unos 300 vehículos que, además de responder a las necesidades del barrio, permitirá acoger gran parte

ibilgailu-jarioari irtenbide bat emango zaio.

del flujo de vehículos que en la actualidad, proveniente de Uribe-Kosta, se introduce en Getxo en busca de las mejores frecuencias de la línea 1.

Gure udalerriko zazpigarrena izango litzateke metro geltoki berri honek ez du oraindik izen ofizialik, beraz, Bizkaiko Garraio Partzuergoak Getxoko Udalari eskatu dio bere proposamenaren berri emateko, izendapen horri ekitearren.

Esta nueva estación de metro, la séptima del municipio, carece todavía de nombre oficial, por lo que el Consorcio de Transporte de Bizkaia ha solicitado del Ayuntamiento de Getxo traslade su propuesta a fin de proceder a su denominación.

Alde horretatik, gure udal talde politikoak baditu bere asmoak, baina gauza bat argi dauka: metroa lurpean sartzea eta beste geltoki bat jartzea hain aspalditik eskatutako kontua denez, eta auzokideentzako onurarako izanda, horri buruzko erabakirik hartu baino lehenago, auzo horretako elkarte sarean horretaz duten iritzia zein den jakitea ezinbestekoa da, horri buruzko erabaki sendorik hartu aurretik.

En este sentido nuestro grupo político municipal tiene lógicamente sus propias preferencias pero entiende que, siendo como es la obra del soterramiento del metro y la habilitación de la estación de metro correspondiente, una actuación largamente solicitada y siendo como es la misma para beneficio y disfrute de todos los vecinos/as, antes de tomar ninguna decisión al respecto, resulta indispensable conocer de la opinión de los mismos a través de la consulta del tejido asociativo del barrio.

Hala ere, kanpora begira, geltoki berria –beste seiak bezala- gure udalerriaren komunikazio, irudi eta kokapenerako erreferente eta ardatza izango da, eta garrantzi handikoa izango den zerbaiten izendapenaz ari garenez, uste dugu galdeketa horretan aditu direnen aholkua beharrezkoa dela, beraiek eman ahal baitute proposamenik egokiena. Gainera, ezin dugu ahaztu, udal talde guztien artean ahalik eta adostasunik handiena lortu behar dugula, behin betiko izena izateak duen garrantziagatik, hain zuzen ere; eta horrez gain ezin dugu udalerrian dagoen iritzia orokorra alde batean baztertu, jakina.

No obstante y tomando en consideración que estamos hablando de la denominación de un referente clave y estratégico en la comunicación, imagen y ubicación exterior de nuestro municipio, como son las estaciones de metro ubicadas en el mismo, esta consulta debería, a nuestro entender, ser acompañada además por el asesoramiento de los expertos correspondientes que nos trasladen la propuesta más adecuada al respecto, sin olvidar, precisamente por la trascendencia de una decisión que se adopta una vez y para siempre, de la necesaria búsqueda del consenso más amplio posible entre los diferentes grupos políticos municipales, todo ello sin descartar la opinión de la

generalidad del municipio.

Horregatik denagatik, udal talde politiko honek Udalbatzari hauxe eskatu nahi dio:

Por todo ello, este grupo político municipal solicita del Pleno del Ayuntamiento que:

Getxo-Andra Mari auzoan kokatuko den geltoki berriari izendapenik egokiena ematearren, auzoko elkarte eta talde guzti-guztiei zuzendutako galdeketa prozesu bati ekin dakion; horretan aditu direnei izendapenari buruz duten iritzia galde dakien, gure udalerriko erreferente garrantzitsua izango baita kanpora begira; eta udal talde politiko guztien arteko elkarrizketa-prozesuari ekin dakion, iritzi, informazio guztiak eta beharrezkotzat hartutako ekarpen guztiak izanda, izendapen hau zein izango den adostasun osoz erabakitzeko".

En aras a conferir la denominación más adecuada para la nueva estación de metro que se ubicará en el barrio de Getxo-Andra Mari, se habilite un proceso de consulta dirigido a todas y cada una de las asociaciones y movimientos vecinales del barrio, se solicite la opinión de expertos sobre la denominación de uno de los referentes exteriores básicos para la comunicación, ubicación y puesta en conocimiento de nuestro municipio, como es la denominación de una de nuestras estaciones de metro, y se comience un proceso de diálogo y acuerdo entre todos los grupos políticos municipales para, con todos los elementos de juicio referidos y aquellos añadidos que se consideren necesario aportar, se adopte en clave de consenso esta denominación".

**197.- UDAL TALDE POPULARRAREN MOZIOA, TURISMO BULEGORAKO KOKAPEN BERRIARI BURUZKOA.**

**197º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/NUEVA UBICACIÓN PARA LA OFICINA DE TURISMO.**

Marisa Arruek mozioa irakurri du. Gogorarazi du azken osoko bilkuran ere gai hori aztertu zela eta Joseba Arregik eraikin berria justifikatzeko argudiotzat eman zituela turismo bulegoaren beharrizanak eta kokalekuaren egokitasuna. Azaldu du mozioan proposatzen den kokalekua udalerriko hotel azpiegiturarik handiena izango denaren parean

Marisa Arrue da lectura a la Moción de referencia. Recuerda que en el último Pleno ya se trató de este tema, y que el Sr. Arregi justificó el nuevo edificio, por la necesidades de la Oficina de Turismo y la adecuación del emplazamiento. Indica que la Moción plantea una ubicación para la Oficina de Turismo que se sitúa frente a lo que va a ser la mayor infraestructura hotelera del

dagoela, kirol portuaren ondoan, eta gurutzontziak atrakatzeko kaitik hurbil, eta, hortaz, gobernu taldearen proposamena hobetzen dela.

municipio, al lado del Puerto Deportivo, y cerca del muelle de atraque de los cruceros, con lo cual mejora la propuesta del equipo de Gobierno.

Aitor Soloetak talde popularrari adierazi dio hainbat aukera aztertu direla bulegoa kokatzeko, eta ondorioztatu dela Ereagako kokalekua, hondartzaren ondoan, egokiena dela. Bat dator mozioaren hasieran esaten denarekin, hots, kokalekurik hoberena aztertzearekin, baina zehaztu du proiektuak baduela urtebete baino gehiago, eta gaia aztertu nahi dela adierazi arren, mozioan jakineko kokaleku bat proposatzen dela. Proposatzen den hori harrigarria iruditzen zaio, aurreko osoko bilkuran Bizkaiko Zubiaren ondoan kokatzea proposatu baitzen, eta ez baitaki zer dela eta aldatu duten iritzia. Mozioan egiten den proposamenari dagokionez, hura baztertu egin zen, proposatutako eremuaren azpian kirol portuaren ur beltzen instalazio batzuk daudelako, eta azala libre egotea behar dutelako instalazioetara iritsi ahal izateko; gainera, instalazio horiek une jakin batzuetan kiratsa bota lezakete. Berak uste du talde popularraren proposamena arinegi ibiltzearen ondorioa dela, eta pentsatzen du talde popularrak ez zekiela instalazio hori han bazegoela; izan ere, bestela, ez da proposamen hori ulertzen.

Aitor Soloeta indica al grupo Popular que se han estudiado diferentes alternativas de ubicación y se ha concluido que el emplazamiento en Ereaga, junto a la playa, es el más adecuado. Comparte lo que inicialmente figura en la Moción que se estudie la mejor ubicación, pero indica que este proyecto lleva más de un año, y pese a manifestarse que se quiere estudiar, en la Moción presenta una ubicación concreta y le asombra la que se plantea ya que en el Pleno anterior se planteó instalarla junto al Puente de Bizkaia, con lo que no sabe a qué se debe este cambio de opinión. Respecto a la propuesta que plantean en la Moción esta fue descartada porque bajo la superficie en la que se plantea se encuentran unas instalaciones de aguas fecales del Puerto Deportivo que necesitan una superficie libre para poder acceder a las mismas, y que además podrían en algún momento concreto generar malos olores. Cree que la propuesta del grupo Popular es el resultado de la precipitación y supone que el grupo Popular desconocía la existencia de esta instalación, ya que de lo contrario no se entiende la propuesta.

Iñaki Urkizak gobernu taldeari eskatu dio turismo bulegoaz azaldu berri denaren moduko azterketak egiten direnean, haiek udal talde guztiei eskura diezazkiela, eta aditzera eman du ez duela iritzi zehatzik osatu turismo bulegorako kokalekurik hoberenaren inguruan, eta, beraz, abstenitu egingo dela.

El Sr. Urkiza pide al equipo de Gobierno que cuando realicen estudios como el que ha manifestado que se han realizado acerca de la Oficina de Turismo, éstos se trasladen a todos los grupos municipales, e indica que no tienen opinión formada respecto a cual puede ser la mejor ubicación para la Oficina de Turismo, por lo cual se va a

abstener.

Luis Almansak argitu du talde sozialistak ez zekiela mozioan turismo bulegoa ipintzeko proposatzen den tokia halako instalazioak zeudela, baina uste du inguru horretan turismo bulegoa non kokatu egongo dela; horregatik, transakzio zuzenketa proposatzen du, kirol portuko toki zehatza kenduta, hain zuzen ere, honako esaldi hau kenduta xedapen ataletik: "kirol portura sartu eta ezkerretara, Arriluze kaiaren ondoan, egun hutsik dagoen zabaldegian".

El Sr. Almansa manifiesta que el grupo Socialista desconocía la existencia de las infraestructuras indicadas en el punto donde plantea la moción ubicar la Oficina de Turismo, pero cree que en ese entorno habrá posibilidad de ubicar la oficina de Turismo, por lo que plantea una transaccional que elimine el lugar exacto propuesto en el Puerto Deportivo, que se concreta en eliminar en la parte dispositiva la frase: "en la explanada actualmente vacía que se encuentra entrando al Puerto Deportivo a la izquierda pegada al muelle de Arriluze".

Marisa Arruek argitu du talde popularrak ez zekiela azpiegitura hori zegoela, eta transakzio zuzenketa onartu du. Era berean, adierazi du ziurrenik konponbide teknikoak egongo direla hobi septikoaren arazorako, eta ez duela berririk gaur egun arte kirats arazorik gertatu izanaz. Azaldu du gobernu taldeak aldeztu zuela egungo kokalekua dela hoberena, eta talde popularraren ustez turismo bulegoa kirol portuan egon behar duela, lehen agertu diren kokapen arrazoiengatik, eta hainbat bulego egon daitezkeela Bizkaiko Zubiaren ondoko plazan, Areetako plazan, eta abarretan, bulego txikiagoak halako tokietan. Azkenik, esan du ez duela baztertzen kokalekuaz eztabaidatzea, baldin gobernu taldeak aipatu dituen azterketak ezagutarazten badira; izan ere, turismo bulegoa zerbitzu hori emateko ahalik eta tokirik hoberenean ipintzea lortu nahi dute.

La Sra. Arrue manifiesta que el grupo Popular desconocía la existencia de esa infraestructura y admite la enmienda transaccional. Indica asimismo que existirán soluciones técnicas para resolver el problema del pozo séptico y que desconoce que hasta la fecha se hayan producido problemas de olores. Manifiesta que el equipo de Gobierno defendió que la mejor opción era la ubicación actual y que el grupo Popular estima que la oficina principal debe de estar en el Puerto Deportivo por las razones de ubicación antes indicadas y que pueden existir diferentes oficinas en la plaza junto al Puente de Bizkaia, plaza de Las Arenas, etc., oficinas menores en dichas ubicaciones. Finaliza manifestando que el grupo Popular no descarta, si les dan a conocer los estudios que el equipo de Gobierno expone, debatir la ubicación ya que lo que buscan es que la Oficina de Turismo esté ubica en el mejor lugar para dar su servicio.

Aitor Soloetak adierazi du gaia asko landu dela arloaren barruan, eta harreman estua dagoela turismoko

El Sr. Soloeta indica que el tema se ha tratado internamente en el Área, que existe una relación intensa con los

teknikariekin. Kasu honetan, kokalekua duela zortzi urte zehaztu zen, eta turismoko teknikariek ondo deritzote kokaleku horri. Gogora ekarri du aurreko osoko bilkuran Jesús Tocak proposatu zuela bulego nagusia Bizkaiko Zubiaren ondoan ipintzeko, eta gobernu taldeak bulego mugikorrak proposatu dituela, haien funtzionamendua eta zertarakoa azalduta, arlo teknikoko eta plangintzako lana jendea informatzeko zereginetik bereizita. Gurutzaldietako turistei dagokienez, azaldu du oso turista mota berezia direla, lehorrean ordu gutxi batzuk baino ez baitituzte ematen; gogorarazi du terminalean badagoela turismo bulego bat, eta halako turismoa Getxora erakartzeko jarduerak egiten ari direla. Gomutarazi du talde popularra gurutzontziak atrakatzeko kaiaren aurka egon zela hasieran, eta orain iritzia aldatu duela, eta horri oso ondo deritzola. Era berean, nabarmendu du Ereagako bulegoaren kokalekua talde popularra gobernu taldean zegoenean ezarri zela, Turismo Arloa zeramatela —zehazki, Marisa Arruek— eta harrigarria gertatzen zaiola orain kokaleku hori zentzugabetzat jotzea; horrek pentsarazten dio talde popularraren proposamenen atzean talde gobernuari azpijana egiteko asmoa dagoela. Gogora ekarri du, halaber, talde sozialistak gobernu taldean parte hartu zuenean, Turismo Arloaz arduratzen zelarik, turismo bulegoa gaur egungo kokalekuan zabaltzeko proposatu zuela, nahiz eta proiektu hura ez zen mamitu. Bukatzeko, azpimarratu du azken zortzi urtean ez dela kokalekua zalantzan jarri.

técnicos de Turismo. En este caso, sobre la ubicación planteada ésta está definida desde hace ocho años, y los técnicos de Turismo valoran positivamente esa ubicación. Recuerda que en el último Pleno el Sr. Toca planteó la posibilidad de ubicar la oficina central al lado del Puente de Bizkaia, y que es el equipo de Gobierno el que ha venido planteando las oficinas móviles, explicando la finalidad y funcionamiento de las mismas, distinguiendo el trabajo de la parte técnica y planificadora de la información al público. Respecto a los cruceristas indica que es un tipo de turistas muy especial, ya que sólo están unas pocas horas desembarcados, y recuerda que existe una oficina de turismo en la terminal, y que están manteniendo actuaciones para intentar atraer ese turismo a Getxo. Recuerda que el grupo Popular inicialmente se opuso al muelle de atraque de cruceros, y que ahora ha cambiado de opinión, lo cual valora positivamente. Indica así mismo que la ubicación de la oficina en Ereaga se realizó cuando el grupo Popular estaba en el equipo de Gobierno municipal llevando las responsabilidades del Área de Turismo, y concretamente la Sra. Arrue, y le llama la atención que ahora califique de ridícula dicha ubicación, lo que le lleva a pensar que la razón de fondo de las propuestas del grupo Popular es desgastar al equipo de Gobierno. Recuerda también que cuando el grupo Socialista participó en el Gobierno municipal llevando el Área de Turismo, planteó la ampliación de la oficina de Turismo en la ubicación actual, proyecto que no se llegó a materializar y finaliza manifestando que en los últimos ocho años no se ha discutido la ubicación.

Marisa Arruek jakinarazi du talde popularraren helburua ez dela gobernu taldeari azpijanik egitea, baizik eta Getxoko herritarren mesederako erabakiak har daitezen lortzea. Talde popularrak gobernu taldean, Turismo Arloan, zegoenean aurrera eraman zuen jardunari dagokionez, gogorarazi du talde popularrak bultzatu zuela turismoko ordezkaritza sor zedin, udalerrian sustatu beharreko jarduera zela pentsatzen zuelako; ordutik, baina, 16 urte igaro dira, eta herria aldatu egin da, eta Ereagan kokatzeko erabakia hartu zen unean erakin hark, orduan Udalaren jabetza zelarik, arazo berezi bat sortzen zuela, turismo bulegoa kokatzean ere konpondu zena. Esan du etorkizunerantz begiratu behar dela, ez iraganerantz, eta ardura duen zinegotziari eskatu dio informazio batzordera noiz edo noiz turismoko teknikariak ekar ditzala, arlo horretako jarduerak azal ditzaten.

La Sra. Arrue indica que la Moción del grupo Popular no busca desgastar al equipo de Gobierno, sino adoptar acuerdos que favorezcan a los ciudadanos de Getxo. En relación a la actuación del grupo Popular cuando estaba en el equipo de Gobierno en el ámbito de Turismo, recuerda que fue el grupo Popular el que impulsó la creación de la delegación de Turismo por entender que era una actividad a fomentar en el municipio, pero que desde entonces han pasado más de 16 años y el pueblo se ha modificado, y que en el momento que se adoptó la decisión de ubicarlo en Ereaga ese edificio que era de propiedad municipal generaba una problemática específica que también se resolvió con la ubicación de la Oficina de Turismo. Indica que lo que hay que hacer es mirar al futuro y no al pasado, y le pide al Concejal responsable que traiga a la Comisión Informativa alguna vez a los técnicos de Turismo para que expliquen las actuaciones en dicho ámbito.

Luis Almansak adierazi du gobernu taldearen bereizgarrietako bat dela erantzukizunak gainerako taldeei leporatzea, berarenak direnean. Aitortu du bere garaian talde sozialistak, EAJrekin batera, proiektu bat izan zuela turismo bulegoa zabaltzeko, eta, era berean, udaletxe berri baterako proiektua egon zela, Humberto Cirarda alkateak sustatua, baina gero EAJk — Iñaki Zarraoa buru eta Imanol Landa gobernu taldean— ez zuela ez proiektu bata ez bestea aurrera eraman, eta horren erantzukizuna EAJrena baino ez dela. Halaber, adierazi du EAJk proiektatutako eraikina ezin dela egin, ez duelako betetzen hirigintzako legedia, hala nola xehetasun azterketa egiteko eskakizuna.

El Sr. Almansa indica que es una particularidad del equipo de Gobierno trasladar las responsabilidades a los demás grupos cuando son propias. Reconoce que hubo en su día un proyecto de grupo Socialista compartido con el PNV, de ampliación de la oficina de Turismo, como también existió un proyecto de nuevo ayuntamiento, auspiciado por el Alcalde Humberto Cirarda, pero posteriormente el PNV con el Sr. Zarraoa a la cabeza y el Sr. Landa en el equipo de Gobierno no llevó adelante ninguno de los dos proyectos, y esa es una responsabilidad exclusiva del PNV e indica también que el edificio proyectado por el PNV no se puede hacer porque no está cumpliendo la legalidad urbanística como es el

cumplimiento de la exigencia de un estudio de detalle.

Aitor Soloetak esan du talde popularrak eta talde sozialistak turismo bulegoaren kokalekuari buruz beste legegintzaldi batzuetan izan dituzten jarrerak gogora ekartzea besterik ez duela egin. Gomutarazi du turismo bulegoa beste toki batean kokatzeko proiektua duela zortzi urtetik hona aztertzen ari dela, eta aurreko legegintzaldian orain proposatzen den kokalekuan lehiaketa bat ere esleitu gabe geratu zela, eta ez zela sekula kokalekua zalantzan jarri. Adierazi du bulego nagusia Ereagako pasealekuan ipintzea, ia kirol portuaren eta Portu Zaharraren arteko erdigunean, kokapen egokia dela bi erreferentzia puntu horietarako, eta, gainera, horrek Ereagako hondartza biziagotzea ahalbidetuko duela.

Aitor Soloeta indica que en su intervención se ha limitado a recordar las posiciones del grupo Popular y grupo Socialista en legislaturas anteriores, en relación a la ubicación de la oficina de Turismo. Recuerda que el proyecto de reubicación de la oficina de Turismo lleva tratándose desde hace ocho años, y en la legislatura anterior quedó incluso un desierto un concurso en la ubicación que actualmente se está planteando, y en ningún momento se discutió el lugar. Indica que la ubicación de la oficina central en el centro del paseo de Ereaga y prácticamente equidistante entre el Puerto Deportivo y el Puerto Viejo, es una ubicación adecuada para ambos referentes, y también posibilitaría dinamizar la playa de Ereaga.

Marisa Arruek esan du etorkizunerantz begiratu behar dela, egungo egoera aintzat hartuta, eta talde popularrak proposatzen duen kokalekua Ereagako hondartzako sarreran bertan dagoela, hotel instalazio nagusien parean, eta, Portu Zaharrari dagokionez, horrek baduela nahikoa garrantzia turistak hara arazorik gabe jotzeko, turismo bulegoan emandako orientabidearekin.

La Sra. Arrue manifiesta que hay que mirar al futuro atendiendo a la realidad presente, y la ubicación que propone el grupo Popular está en la misma entrada de la playa de Ereaga, cerca del Puerto Deportivo, frente a las mayores instalaciones hoteleras, y que en relación al Puerto Viejo, tiene suficiente potencia como para que con una orientación indicada de la oficina de Turismo puedan acudir los turistas sin problemas.

Eztabaida amaitu, eta mozioa bozkatu da, onartutako zuzenketa eginik. Hauek izan dira emaitzak: aldeko 14 boto (PP eta PSE-EE), aurkako 10 boto (EAJ) eta abstentzio bat (EB/B).

Finalizado el debate, se somete la Moción de referencia a votación con la enmienda admitida, obteniendo el siguiente resultado: 14 votos a favor del PP y PSE-EE, 10 en contra del PNV y 1 abstención de EB/B.

Horrenbestez, honako hau erabaki da gehiengoz:

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"TURISMO BULEGORAKO KOKAPEN BERRIA

Getxok, urteetan zehar, turismo eta aisialdirako erakargarritasuna sendotzea lortu du.

Alderdi Popularrak, 1991. urtean, turismoko ordezkaritza abian jarri zuen, eta, horrekin, egungo Turismo Bulegoa inauguratu zen 1992an; izan ere, uste osoa genuen Getxok ezaugarri guztiak zituela Euskadiko udalerri turistiko hoberenetakoa bilakatzeko.

Eta halaxe gertatu da. Azken udan, Getxora iritsitako bisitari kopuruak gainditu egin ditu Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan turismoak izan dituen emaitza txarrak.

Getxon, hain zuzen ere, turismoa % 1,29 igo zen udan, atzerriko bisitarien kopurua % 14,7 gehitu zelarik, 2007ko datuen aldean. Oro har, Getxoko udalerrira etorritako turista kopuruak % 1,29 egin zuen gora, Bizkaian nahiz Euskadin izandako atzerakadaren aurrean: hurrenez hurren, % -3,8 eta % -4,3.

Antza denez, egungo Turismo Bulegoa zabaldu egin behar da, txikia geratu delako orain dagoen eskarirako; hori dela eta, gobernu taldearen asmoa da bulego berria "La Terraza" taberna dagoen tokian eraikiko den eraikineko "bunker eztabaidatu"an kokatzea, kalearen beste aldean, hain zuzen.

Udal Talde Popularrean uste dugunez, ekimen zentzugabe horri heldu baino lehen, arretaz aztertu behar da Turismo Bulegoa aldatzeko kokalekurik

"NUEVA UBICACIÓN PARA LA OFICINA DE TURISMO

Getxo ha conseguido consolidar su atractivo para el turismo y el ocio a través de los años.

En 1991 el Partido Popular puso en marcha la nueva delegación de Turismo y con ella en 1992 se inauguró la actual Oficina de Turismo, ya se tenía el convencimiento de que Getxo contaba con todos los ingredientes para convertirse en uno de los mejores municipios turísticos de Euskadi.

Y así lo ha hecho. Este último verano los visitantes que han llegado a Getxo han superado los malos resultados del turismo en Vizcaya y en la Comunidad Autónoma Vasca.

El turismo en Getxo subió 1,29% en verano, con un aumento del 14,7% en el número de visitantes extranjeros respecto a los datos obtenidos en 2007. En términos generales, Getxo registró un aumento del 1,29% en el número de turistas en el municipio, frente al retroceso registrado tanto en Vizcaya (-3,8%), como en el resto de Euskadi (-4,3%)

Parece ser, que la actual Oficina de Turismo necesita una ampliación por haberse quedado pequeña ante la demanda actual, por lo que el equipo de gobierno tiene pensado instalar la futura Oficina de Turismo (cruzando la calle) en el "cuestionado bunker" nuevo edificio a construir en el lugar que se encuentra el Bar "La Terraza" .

Desde el Grupo Municipal Popular pensamos que tomar esta actuación tan ridícula, se debería estudiar con detenimiento el lugar más idóneo para

egokiena zein den, eta lekualdaketa horrekin errendimendu handiagoa lortzea eta bisitariei zerbitzu hobea ematea bilatu.

Getxo Alderdi Popularraren ikuspuntutik, bulego berria jende gehien joaten den tokian kokatu beharko litzateke, eta horregatik uste dugu Turismo Bulegoa kirol portura aldatu beharko litzatekeela, handik milaka pertsonak pasatzen direlako, eta nabigatzaile eta gurutzaldietako turista askoren helmuga delako.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Udal Talde popularrak proposatzen du Turismo Bulego berria kirol portuaren sarreran eraiki dadila, horretarako baimenak dagozkien erakundeei eskatuta".

el traslado de la Oficina de Turismo, y buscar con el traslado un mejor rendimiento y dar un mejor servicio a las personas que nos visitan.

Para el Partido Popular de Getxo, la nueva Oficina debe encontrarse en el lugar de mayor afluencia del Municipio y por ello consideramos que el traslado de la Oficina de Turismo debería hacerse al Puerto Deportivo, lugar de paso de miles de personas y llegada de los múltiples navegantes y cruceristas

Por lo el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente Propuesta de Acuerdo:

El Grupo Municipal Popular propone que la nueva Oficina de Turismo se construya en la entrada del Puerto Deportivo, para lo que habrá que pedir las autorizaciones y permisos a las entidades oportunas".

**198.- UDAL TALDE POPULARRAREN MOZIOA, ANDRA MARIRI BURUZKOA.**

Marisa Arruek mozioa irakurri, eta adierazi du daitekeena dela kokaleku zehatza izatea proposamenean jasotakoa ez den beste bat.

Luis Almansak esan du hasierako proposamena nahasia dela, eta zertan ari den argitzearren, inguru horretako Tosu estrata izeneko bide baten argazkia erakutsi du, eta haren ustez bide horretatik igarotzea ezinezkoa dela adierazi du. Hartara, transakzio zuzenketa proposatu du, xedapen

**198º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ANDRA MARI.**

La Sra. Arrue da lectura a la Moción de referencia, e indica que respecto a la localización concreta puede no ser la reflejada en la propuesta.

El Sr. Almansa manifiesta que la propuesta inicial es confusa y a fin de concretar sobre qué está tratando, enseña una foto de un camino en la zona, denominado Estrada de Tosu, que en su opinión está intransitable. Plantea por lo tanto una transaccional consistente en incluir después de

atalean, "Tosu bidean asfaltoa eta argiak ipin daitezela eskatzea"ren ostean, hau gehituta: "Ormaza estratatik, Europa ikastetxeko kirol zelaien itxituran zehar", eta "Ormaza estratarekin lotzeko" kenduta.

Camino de Tosu, en la parte dispositiva "desde la Estrada de Hormaza y que discurre junto al cierre de las pistas deportivas del Colegio Europa", suprimiendo "para enlazar con la Estrada de Hormaza".

Marisa Arruek onartu egin du transakzio zuzenketa hori.

La Sra. Arrue admite la enmienda transaccional.

Joseba Arregik hitza hartu, eta esan du urriaren 1ean Andra Mariko auzo elkartearekin egon zirela, eta arazoaren berri eman zietela, eta, era berean, eurek arazoa Garraio Partzuergoari jakinarazi ziotela, eta hark bere gain hartu zuela sasiak kentzeko ardura, baina egoera zein lanen iraupena ikusita, gobernu taldeak mozioaren alde agertuko dela, Garraio Partzuergoari aurkezteko, eta bide hori urbanizatzeari ekin diezaion.

Interviene el Sr. Arregi para indicar que el 1 de octubre estuvieron con la asociación de vecinos de Andra Mari y que les plantearon la cuestión, y trasladaron las quejas al Consorcio de Transportes que se comprometió a realizar una limpieza de vegetación, pero que vista la situación y la duración de las obras, el equipo de Gobierno va a apoyar la Moción para plantearle al Consorcio de Transportes que acometa la urbanización de dicho paso.

Mozio transakzionatua bozkatu da, eta Udalbatzako zinegotzi guztien aldeko botoak izan ditu.

Sometida la Moción transaccionada a votación, obtiene la totalidad de votos de los Concejales de la Corporación.

Horrenbestez, honako hau erabaki da aho batez:

En consecuencia, por unanimidad, se acordó:

"ANDRA MARIRI BURUZ

"SOBRE ANDRAMARI

Andra Mariko auzotarrek, Maidagan kalean metroa lurperatzeko lanak hasi direla eta, salatu egiten dute Tosu bidea txarto dagoela, tona askoko kamioiak pasatzean, eta izan diren euriak erortzean, sortu diren lokatz eta zuloengatik. Horrek haien bizi kalitatea kaltetu du, eta bakartuta utzi ditu.

Los vecinos de Andra Mari, ante el inicio de las obras del soterramiento de Maidagan, denuncian que el mal estado del Camino de Tosu a causa del barro y de los baches causados por el paso de los camiones de gran tonelaje y las lluvias registradas. Esto ha afectado de lleno a su calidad de vida y les ha dejado incomunicados.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Por todo ello el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente propuesta de acuerdo:

Tosu bidean asfaltoa eta argiak ipin

Que se solicite el asfaltado y la

daitezela eskatzea, Ormaza estratatik, Europa ikastetxeko kirol zelaien itxituran zehar, horrela oinezkoentzako eremu bat izateko, zuzenean inguruko denda eta ikastetxeekin lotzeko.

iluminación del Camino de Tosu, desde la Estrada de Hormaza y que discurre junto al cierre de las pistas deportivas del Colegio Europa y disponer así de una zona peatonal que enlace directamente con los comercios y centros educativos de esa zona

**199.- UDAL TALDE POPULARRAREN MOZIOA, OBRA SOZIALETAN GABONETAKO LUNCHAREN AURREKONTUAREN INBERTSIOARI BURUZKOA.**

**199º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/INVERSIÓN DEL PRESUPUESTO DEL LUNCH DE NAVIDAD EN OBRAS SOCIALES.**

Jesús Tocak mozio hau irakurri du:

Jesús Toca da lectura a la siguiente Moción:

"GABONETAKO LUNCHAREN AURREKONTUA OBRA SOZIALETAN INBERTITZEA.

"INVERTIR EL PRESUPUESTO DEL LUNCH DE NAVIDAD EN OBRAS SOCIALES.

Denok dakigunez, krisi ekonomikoa egoera kezkagarriak sortzen ari da gure auzokide batzuen artean, eta haietariko batzuek Gabonez era duin batean gozatzeko aukera ere ez dute izango.

Todos sabemos que la crisis económica esta causando situaciones alarmantes entre algunos convecinos nuestros, algunos de ellos ni siquiera podrán disfrutar de la Navidad de una manera digna.

Egoera hori ikusita, Udal Talde Popularrak uste du ez dela oso koherentea eta oso gizarte sentsibilitate handikoa 7.500,00 euro gastatzea (2007ko aurrekontua) Gabonetako ohiko luncha egiteko Udaleko langileekin. Hain zuzen, iruditzen zaigu langile horiek ere gurekin bat etorriko direla gure ekimenean. Diru hori udalerriko behartsuenen mesederako karitatezko obretan gasta daiteke.

Ante esta situación, al Grupo Municipal Popular le parece poco coherente y de poca sensibilidad social gastar la cantidad de 7.500,00 € (presupuesto del 2007) en realizar el tradicional copetín o lunch de navidad con los trabajadores del Ayuntamiento, que creemos que nos apoyarán en esta iniciativa, pudiendo destinarse este dinero a obras de caridad que beneficien a los más necesitados del municipio.

Bestalde, ezin dugu albo batera utzi gure herrian ordena erlijioso batzuek,

Por otra parte no podemos desconocer que en nuestro pueblo tenemos ordenes

hala nola Portu Zaharreko Karitateko mojek, ahalegin handia egiten dutela behartsuenei laguntzearren, janaria emanez eta haien arropak garbituz, gure herrian euren zerbitzuak ematen dituzten gizabidezko beste erakunde batzuez gain. Hala, bada, uste dugu Getxoko Udalak une hau aprobetxatu, eta solidarioa izan daitekeela.

religiosas, como las monjas de la Caridad del Puerto Viejo, que se desviven a diario en ayudar a los más necesitados dándoles comida y lavando su ropa, así como otro tipo de organizaciones humanitarias que también prestan sus servicios en nuestro pueblo. Por lo que creemos que el Ayuntamiento de Getxo puede aprovechar el momento y ser solidario con ellos

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Por todo ello el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente propuesta de acuerdo.

Langile guztientzat 2008an egitekoa den Gabonetako luncha bertan behera uztea, eta ekitaldi horri dagokion zenbatekoa (7.500,- €, 2007koaren arabera) karitate edo ongintzazko obretan erabiltzea, arestian aipatutakoetan edo antzekoetan".

Que se suspenda el Lunch de Navidad para todo el personal, previsto para este año 2008 y que el importe (7.500,- € correspondiente al año 2.007) de la citada actividad se destine a obras de Caridad o de beneficencia, como las indicadas anteriormente".

Luis Almansak azaldu du talde sozialistak oso ondo deritzola talde popularraren behartsuei laguntzeko asmoari, baina ez duela uste luncha kentzea zentzuzko konponbidea denik, baldin Udalaren lunch guztiak, oro har, kentzea proposatzen ez bada, behintzat. Kritikatu du proposamena gainerako talde politikoekin eta langileen ordezkariekin kontsultatu gabe egin dela; izan ere, lunch horrek, modu mugatuan bada ere, langile zerrendako kide guztiak batzea ahalbidetzen du, eta horrek langileen arteko harremanak hobetzen du, eta, beraz, udal zerbitzuak hobeto ematea eragiten. Azkenik, adierazi du badirela Udalean aurrezteko beste bide batzuk, aurreztutakoa gizarte laguntzetan erabiltzearren, esaterako, gastu arrunta murriztea.

El Sr. Almansa indica que el grupo Socialista valora positivamente la voluntad del grupo Popular de apoyar a los necesitados, pero no cree que suprimir el lunch sea una solución razonable, a menos que se plantee una generalización de la supresión de todos los lunchs del Ayuntamiento. Critica que la propuesta se haya realizado sin consultar con otros grupos políticos, y representantes de los trabajadores, ya que el lunch posibilita, aunque sea de manera limitada, el contacto entre todos los trabajadores de la plantilla, lo cual mejora las relaciones entre los mismos y redunda en la mejora de la prestación de los servicios municipales. Finaliza manifestando que hay otras vías de ahorro en el Ayuntamiento para derivar a prestaciones sociales como puede ser limitar el gasto corriente.

Jesús Tocak esan du luncha antolatzea

El Sr. Toca indica que la organización

alkatearen ardura dela, eta proposatu duena bat datorrela enpresa askotan egin asmo dutenarekin, gastuak bere horretan atxikitzeko neurriei dagokionez. Haren ikuspuntutik, mozioan adierazten den ideia da luncha larregizko gastua dela, nahiz eta ez duen ukatzen langileen arteko harremanetarako aukera dela. Era berean, agertu du talde popularrak ez duela arazorik mozioa lunch guztietara, oro har, zabaltzeko, eta asmoa dela mozioak jendea sentiberatzea, eta aurrezten dena gizarte gastuetan erabiltzea. Bukatzeko, esan du sindikatuak kontsultatu dituztela, eta batzuek aldeko iritzia adierazi dutela, baina, dena dela, azkenean alkateak erabakiko duela.

del lunch es competencia del Alcalde y que lo que plantea es en coherencia con las actuaciones que están planteándose en muchas empresas de medidas de congelación de gastos. Estima que la Moción lo que indica va en la idea de que el lunch supone un gasto excesivo, aunque no niega que es una posibilidad de relación entre los trabajadores. Manifiesta así mismo que el grupo Popular no tiene problemas en extender la Moción de manera general a todos los lunchs, y pretende que la moción genere una sensibilidad y que lo que se consiga ahorrar vaya a gasto social. Finaliza manifestando que han consultado con sindicatos y que algunos les han manifestado su opinión favorable, aunque finalmente es el Alcalde quién resolverá.

Iñaki Urkizak azaldu du luncharen gainean askotariko hausnarketak egin daitezkeela, egun horien konnotazio erlijiosoarengatik eta abarrengatik, baina talde sozialistak esandakoarekin bat datorrela esan du, hots, ekitaldi hori batzeko gune gisa ikustearekin.

El Sr. Urkiza manifiesta que sobre el lunch caben muchas reflexiones empezando por lo de la connotación religiosa de la fecha, etc., pero manifiesta su conformidad con lo manifestado por el grupo Socialista de valorar el acto como un espacio de encuentro.

Mozioa bozkatu da, eta ez da onetsi, emaitzak hauek izanda: aldeko 10 boto (PP) eta aurkako 15 boto (EAJ, PSE-EE eta EB/B).

Sometida la Moción de referencia a votación, es rechazada al obtener 10 votos a favor del PP y 15 en contra del PNV, PSE-EE y EB/B.

**200.- UDAL TALDE POPULARRARAREN MOZIOA, GAZTERIAREN KONTSEILUARI BURUZKOA.**

**200º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/CONSEJO DE LA JUVENTUD.**

Talde popularrak mozioa kendu du.

Por el grupo municipal Popular fue retirada la Moción de referencia.

**201.- UDAL TALDE POPULARRARAREN MOZIOA, TRAFIKOAREN LASAITZAILEEI BURUZKOA.**

Jon Eguiluzek mozioa irakurri du. Aditzera eman du ez duela betarik izan mozioa euskaratzeko, EAJri gertatu zaion bezalaxe, eta kritikatu du Euskara Zerbitzuari mozioa itzultzeko gero eskatuta, ezetza eman diotela, aurretik zegokion tasa ordainduta baino ez zela itzuliko, eta horregatik gaztelaniaz irakurri beharko duela.

Joseba Arregik jakinarazi du teknikariek azaldu diotela agindu horretara moldatzea ez dela nahitaezkoa udalerrientzat, eta, mozioan esandakoari dagokionez, esan du haren ustez ez dela beharrezkoa baterako azterketarik egitea, trafikoaren lasaitzaile guztiak zenbatuta daudelako, nahiz eta agiri bakarrean batera jasota ez egon. Adierazi du onargarria iruditzen zaiola mozioaren azken helburua, baina, haren ustez, ezin dela agindu hori hitzez hitz aplikatu, horrek pasabideetako pinturan elementu irristagaitzak erabiltzea galaraziko lukeelako, eta, halakoak erabili ezean, arriskua sortzen delako; hortaz, mozioaren aurkako botoa emango dutela esan du.

Jon Eguiluzek teknikarien iritziarekin, agindu hori aplikatu behar ez dela diotenean, ados ez dagoela agertu du, Zirkulazio Arautegian zehazten denari jarraituz, eta arautegi horretako dagokion idatz zatia irakurri du.

**201º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/TRANQUILIZADORES DE TRÁFICO.**

Jon Eguiluz da lectura a la Moción de referencia. Indica que no ha tenido tiempo para traducir la Moción al euskera como le ha ocurrido al PNV, y critica que habiendo solicitado posteriormente al Servicio de Euskera la traducción de la Moción, le ha sido negada, y que de traducirse sólo sería previo pago de una tasa correspondiente, lo que le ha obligado a leer en castellano.

El Sr. Arregi indica que los técnicos le han manifestado que la adaptación a esa orden no es obligatoria para los municipios y respecto al contenido de la Moción estima que no es necesario realizar un estudio conjunto ya que todos los tranquilizadores existentes están contabilizados, aunque no estén todos reunidos en un documento conjunto. Les parece el objetivo final de la moción asumible, aunque estiman que no se puede aplicar en su literalidad la orden que plantean ya que supondría el no poder aplicar elementos antideslizantes en la pintura de los pasos, lo cual genera peligrosidad, por lo que votarán en contra de la moción.

El Sr. Eguiluz indica que discrepa con la opinión técnica de la no aplicabilidad de dicha orden en función de lo que define el Reglamento de Circulación, al que da lectura en el apartado correspondiente. Recuerda así mismo

Gogora ekarri du, halaber, urtero, San Ignazioko lasterketa dela kausa, halako elementuak aldatu egiten direla, eta mozioa aplikatuz gero, hori ez litzatekeela gertatuko. Jakitera eman du, halaber, udalerria ez daudela bi irtengune berdin, Ormaza kalea adibidetzat jarrita, eta eskatu du, mozioa onesten ez bada ere, aintzat har daitezela proposatzen diren funtsezko alderdiak.

que todos los años, con motivo de la carrera de San Ignacio se modifican este tipo de elementos, y si se aplicara la moción esto no sucedería. Manifiesta también que en el municipio no hay dos resaltes iguales, poniendo como ejemplo la calle Hormaza, y pide que aunque la moción no prospere, se tengan en cuenta las cuestiones de fondo que se proponen.

Iñaki Urkizak aditzera eman du mozioaren aldeko botoa emango duela, nahiz eta berak nahiago zuen azterketara bakarrik mugatzea.

El Sr. Urkiza indica que votará a favor de la Moción, aunque hubiera preferido que se limitara únicamente al estudio.

Joseba Arregik azaldu du Ormaza kalea heredatutako kalea dela, eta horregatik gertatu dela udalerriaren gainerakoan gertatzen ez den egoera bat, eta gobernu taldea abstenitu egingo dela jakinarazi du.

El Sr. Arregi indica que la calle Hormaza es una calle heredada, por lo que se ha producido esa situación que en el resto del municipio no se produce, y que el equipo de Gobierno se va a abstener en la votación.

Mozioa bozkatu da, eta hau izan da emaitza: aldeko 15 boto (PP, PSE-EE- eta EB/B) eta 10 abstentzio (EAJ).

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 15 votos a favor del PP, PSE-EE- y EB/B y 10 abstenciones del PNV.

Horrenbestez, honako hau erabaki da gehiengoz:

En consecuencia, se acordó por mayoría:

"TRAFIKOAREN LASAITZAILEEI BURUZ

"SOBRE LOS TRANQUILIZADORES DE TRÁFICO

Bide segurtasunaren arloan Udalak aurrera eramaten dituen jardueretan eduki beharreko helburu nagusia udalerri osoan trafikoa segurua izatea da.

La seguridad del tráfico a lo largo de todo el municipio es el objetivo básico que debe presidir la actuación del Ayuntamiento en su departamento de seguridad vial.

Gure udalerriko kaleetan, abiadura txikiagoan zirkulatzea beharrezkoa den tarte eta gune berezi batzuk daude.

En las calles que forman parte de nuestro municipio, existen determinados tramos y puntos singulares en los que se requiere se mantenga una velocidad de circulación reducida.

Halakoetan abiadura gutxiagotzea eta arreta handiagoz gidatzea lortzeko, bide seinaleak erabiltzen dira batez ere. Hala ere, badira beste modu gehigarri batzuk hori lortzeko, hala nola abiadura-murriztaileak, helburu horietan lagungarri.

La señalización vial es, en general, el medio utilizado para lograr en estos tramos y puntos singulares la reducción de la velocidad y el aumento de la atención en la conducción. Sin embargo existen otros medios adicionales, como son los reductores de velocidad, que pueden colaborar a conseguir dichos objetivos.

Berriki irailaren 23ko FOM/3035/2008 Agindua argitaratu zen, eta hartan bide ekipamenduko abiadura-murriztaileak arautzeko irizpide jakin batzuk ezarri ziren, zirkulazioan segurtasuna hobetzearren.

Recientemente se ha publicado la ORDEN FOM/3035/2008 de 23 de septiembre, en la que se establecen una serie de criterios para regular los citados reductores de velocidad, que forman parte del equipamiento vial orientándose hacia la mejora de la seguridad de la circulación.

Gure udalerrian neurri horiek erabiltzean izandako esperientzia, funtzionatzen duten moduari buruz ikasitakoa, eta haien alde on eta txarren balioztapena direla eta, komeni da gure udalerriko abiadura-murriztaileei buruzko azterketa bat egitea, haiek Sustapen Ministroaren FOM/3035/2008 Agindu berrira moldatzearren.

La experiencia en la utilización de dichos elementos en nuestro municipio, los conocimientos adquiridos sobre su comportamiento, la valoración de sus ventajas e inconvenientes, son cuestiones que aconsejan la elaboración de un estudio sobre los reductores de velocidad instaladas en nuestro municipio para poder acoplarlos a la nueva ORDEN FOM/3035/2008 elaborada por el Ministerio de Fomento

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako erabaki proposamena aurkezten du:

Por lo que el Grupo municipal del Partido Popular presenta la siguiente propuesta de acuerdo:

Gure udalerrian dauden abiadura-murriztaileei buruzko azterketa egitea, haiek FOM/3035/2008 Agindura moldatzearren, beharrezkoa izanez gero".

Se elabore un estudio sobre los reductores de velocidad, existentes en nuestro municipio, para adaptarlos, si fuera necesario, a la nueva ORDEN FOM/3035/2008".

**202.- UDAL TALDE POPULARRAREN MOZIOA,**

**202º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR**

**ETXEKO OLIO ERABILIA BILTZEKO ZERBITZUARI BURUZKOA.**

Jone Ruiz de Eguilazek ondorengo mozioa irakurri du, eta ekologiaren, legearen zein ekonomiaren aldetiko zioak direla eta justifikatu du; aditzera eman du, orobat, udalerri askotan dagoen zerbitzua dela eta ez duela ikusten Getxon ez ezartzeko arrazoirik:

"ETXEKO OLIO ERABILIA BILTZEKO ZERBITZUARI BURUZ

Etxeko olio erabilia oso hondakin ugaria da, eta oso kutsagarria: litro bat oliok 1.000 litro ur ere kutsa ditzake. Egin diren azterlanen arabera, urtean biztanle bakoitzak, bataz beste, lau litro etxeko olio erabili sortzen ditu, eta horrek esan nahi du getxotarrok urtean 350 milioi litro ur baino gehiago kutsatzen ditugula urtean.

Etxeko olioa erabili, eta harraskako zulotik bota ohi da, eta horrek kutsadura arazo larriak, hodien butxadura, estoldetako arratoiak ugaltzea, eta abar sortzen ditu. Gainera, ur sareetako ura koipez beterik iristen da araztegietara, eta horrekin energia asko galtzen da, olioak arazteko prozesuak zaildu eta luzatu egiten dituelako; horrez gain, dirua ere galtzen da, energia horrek nahiz ura ondo arazteko behar diren produktu kimikoek garestitzen dituztelako arazte gastuak.

Olioa ibaietara edo itsasora iristen denean, arazo larriak sortzen dira ingurumenaren aldetik, hala nola ur

**S/SERVICIO DE RECOGIDA DE ACEITE DOMÉSTICO USADO.**

Jone Ruiz de Eguilaz da lectura a la siguiente Moción, y justifica la misma en razones ecológicas, legales, económicas e indica que es un servicio bastante extendido en los municipios, por lo que no ve problema para su implantación en Getxo:

"SOBRE SERVICIO DE RECOGIDA DE ACEITE DOMÉSTICO USADO

El aceite doméstico usado es un producto de desecho muy abundante y altamente contaminante: un solo litro de este aceite puede llegar a contaminar 1.000 litros de agua. Los diferentes estudios realizados señalan que por habitante se genera al año una media de cuatro litros de aceite doméstico usado, lo que supone que los getxotarras contaminamos más de 350 millones de litros de agua al año.

Una vez usado, el aceite doméstico se vierte por el fregadero, lo que conlleva grandes problemas de contaminación, atascos en tuberías, aumento de ratas en las alcantarillas,... Además, el agua de la red sanitaria llega a las depuradoras cargada de grasas, hecho que supone una gran perdida de energía, ya que el aceite alarga y complica los procesos de depuración; y de dinero, ya que esa mayor cantidad de energía y de productos químicos necesarios para depurar convenientemente el agua encarecen los costes de depuración.

Cuando el aceite llega a los ríos o al mar se generan graves problemas medioambientales, como la presencia

azalean zikintasunez betetzea eta kostaldean marmokak egotea, ura pixkanaka berotzen egotearen eragile handienetako bat izateaz gain.

Horrela, etxeko olio erabilia birziklatzea, onura ekonomikoa ez ezik, ingurumenaren aldetiko onura era bada, eta hori, zalantzarik gabe, balio handiagokoa da, natur ingurunean olio erabili gutxiago egotea eragiten delako, bai eta petrolioarekin erregaiak egitean sortzen den kutsadura murriztea ere.

Tokiko Agenda XXIaren helburuetako bat da birziklagai diren hondakinen bolumena handitzea, eta helburu horri dagokio etxeko olio erabilia biltzeko zerbitzu bat ezartzea, batez ere biodiesela egiteko. Erregai horrek ingurumena gehiago errespetatzen du, motorraren errendimendua hobetzen du, eta haren bizitza luzatzen; gainera, gero eta gasolina zerbitzugune gehiagotan eskaintzen den erregai bat da, ahaztu gabe isurketa kutsagarriak asko murrizten dituela. Baina, horrez gain, etxeko olio erabiliekin hainbat produktu lortzen dira, hala nola xaboiak, garbigarriak, industria olioak eta farmazia produktuak.

Era berean, Bilbo Handiko Ur Partzuergoak aspalditik saiatzen ari da udalak ohartarazten zer garrantzitsua den birziklatze mota hori egitea.

Etxeko Olio Erabilia Biltzeko Zerbitzua ezartzearen helburua da bizpahiru urtean boskoiztea urte bakoitzean biltzen den olioa, gero birziklatzeko, zerbitzu hori ezarri duten udaletan gertatu den bezala. Getxori

de suciedad sobre la superficie del agua y medusas en la costa, además de ser un gran responsable del calentamiento paulatino del agua.

De esta manera, el reciclaje del aceite doméstico usado supone no sólo un beneficio económico, sino también un beneficio medioambiental, sin lugar a dudas de mayor valor, al disminuir la presencia de aceites usados en el medio natural y la contaminación que origina la elaboración de combustibles a partir del petróleo.

La Agenda Local XXI tiene entre sus objetivos aumentar el volumen de residuos objeto de reciclaje, suponiendo parte de este objetivo la implantación de un Servicio de Recogida Selectiva de Aceite Doméstico Usado para su reciclaje, principalmente para la elaboración de biodiesel, combustible más respetuoso con el medio ambiente, que mejora el rendimiento del motor y prolonga su vida, y que cada vez se ofrece en más gasolineras; todo ello sin olvidar que su uso reduce de forma notable las emisiones contaminantes. Pero además, a partir de los aceites domésticos usados se obtienen diferentes productos, tales como jabones, detergentes, velas, aceites industriales y productos farmacéuticos.

Asimismo, el Consorcio de Aguas de Bilbao lleva tiempo intentando concienciar a los ayuntamientos de la suma importancia que implica el observar este reciclaje.

El objetivo de la implantación del Servicio de Recogida de Aceite Doméstico Usado es quintuplicar en el plazo de dos-tres años la cantidad de aceite recogido anualmente para su posterior reciclaje, como así ha

dagokionez, urtean 350.000 bat litro etxeko olio erabili sortzen dira. Haietatik 60.000 litro bakarrik birziklatuta, 30.000 litro biodiesel egin litezke, eta 60 milioi litro ur kutsatzea saihestuko liteke.

sucedido en los ayuntamientos en los que ya ha sido implantado este servicio. Respecto a Getxo, anualmente se generan unos 350.000 litros de aceite doméstico usado. Solo con el reciclaje anual de 60.000 litros de ese aceite se podrían obtener 30.000 litros de biodiesel y se evitaría contaminar 60 millones de litros de agua del mar.

Etxeko Olio Erabilia Biltzeko Zerbitzua horretarako prestaturiko edukiontziak udalerriko toki estrategikoetan ipintzean datza. Gero, herritarrek eurek sartuko dute edukiontzi horietan olioa, era hermetikoan itxitako edozein plastikozko botila edo ontzitan sartu eta gero. Horrela, edukiontzien bidez herritarrei edozein ordutan eta urteko 365 egunetan birziklatzea ahalbidetzen zaie, eta ingurumenaren alde era arduratsuan jokatzea errazago egiten da.

El Servicio de Recogida de Aceite Doméstico Usado consiste en la instalación de contenedores habilitados a este fin situados en lugares estratégicos del municipio. Posteriormente, los ciudadanos depositan en los mismos el aceite que previamente han recogido en cualquier botella o envase de plástico herméticamente cerrado. De esta forma, los contenedores posibilitan al ciudadano el reciclaje a cualquier hora del día los 365 días del año, con lo que se facilita una actividad medio ambientalmente responsable.

Horregatik, Udal Talde Popularrak honako erabaki proposamen hau aurkezten dio Udalbatzari, azter eta onets dezan:

Por ello, el Grupo Municipal Popular eleva ante este Pleno, para su debate y aprobación, la presente Propuesta de Acuerdo:

Getxoko Udalbatzak Etxeko Olio Erabilia Birziklatzeko Zerbitzua ezartzea erabaki du, horretarako edukiontziak instalatuta".

El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda la implantación del Servicio de Recogida de Aceite Doméstico Usado mediante la instalación de contenedores habilitados para este fin"

Keltse Eigurenek jakinarazi dio Ingurumeneko Ekintza Planean badagoela helburu hori jasota, eta hura lortzeko dihardutela lanean. Azaldu duenez, halakoak gaur egun Garbigunean biltzen dira, eta mozioan proposatzen den tanga motak eragozpenak ditu, hala nola aparkalekuak kentzea eta bide publikoan irisgarritasun arazoak

Keltse Eiguren le indica que en el Plan de Acción Medioambiental se recoge este objetivo y se está trabajando en ello. Explica que actualmente se recogen en el Garbigune, y que la instalación de depósitos como el que se plantea en la Moción tiene inconvenientes como el de reducir plazas de aparcamiento, generar problemas de accesibilidad en la vía

sortzea, produktu kutsagarri eta sukoi batek kalean bilduta edukitzeak dakarren arriskuaz gain, halabeharrezko edo berariazko istripua gertatuz gero. Azkenik esan du bilketa mugikorraren aukera ere badagoela, eta, horrek beti erabiltzaileen eskura egoteko abantaila ez duen arren, arrisku gutxiagokoa dela, eta toki gehiagotara iristen dela, eta horregatik proposamenari honako transakzio zuzenketa hau egitea proposatzen duela:

pública, además del riesgo que supone que un producto contaminante e inflamable se encuentre almacenado en la vía pública, por posibles accidentes fortuitos o intencionados. Finaliza manifestando que existe la posibilidad de la recogida móvil que, si bien no tiene una permanencia que facilita el acceso de los usuarios, tiene menos riesgos y llega a más lugares, por lo que plantea una enmienda transaccional a la propuesta que dice lo siguiente:

“Erabaki proposamena aldatzea, hitzez hitz hau jarrita: Getxoko Udalbatzak Etxeko Olio Erabilia Birziklatzeko Zerbitzuaren ezarpena aztertzea erabaki du, horretarako edukiontziak instalatuta edo aukerako beste edozein sistema erabilita”.

“Modificar la propuesta de acuerdo, cuyo tenor literal es: “El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda el estudio de implantación de un Servicio de Recogida de Aceite Doméstico Usado mediante la instalación de contenedores habilitados para este fin o cualquier otro sistema alternativo”.

Jone Ruiz de Eguilazek, talde popularraren izenean, zuzenketa onartzen du, eta argitu du hasierako proposamenean ez zela eskatzen tangak jartzea edukiontziak dauden gune guztietan, eta gaineratu du olio erabilirako edukiontzien arloan aurrerapenak izan direla, eta askoz estankoagoak direla orain, eta erabilerari dagokionez, uste osoa duela herritarrek gizabidez jokatuko dutela.

Jone Ruiz de Eguilaz, en nombre del grupo Popular acepta la enmienda e indica que en la propuesta inicial no se está pidiendo que fuera necesario ubicar en todos los lugares donde existan en este momento contenedores, y además que ha habido avances técnicos para contenedores de aceite usado que son ya bastante más estancos, y que en relación a la utilización confía en el civismo de los ciudadanos.

Keltse Eigurenek eskertu egin du transakzio zuzenketa onartu izana, eta baieztatu du gobernu taldeak ere ez duela uste txarrik herritarren gizabidezko jokabideari buruz, baina azaldu du gaur egungo edukiontzietako tangen mekanikak nahi gabeko isurketak eragin ditzakeela.

Keltse Eiguren agradece la aceptación de la enmienda transaccional y ratifica que tampoco el equipo de Gobierno desconfía de los vecinos en cuanto a su comportamiento cívico, pero indica que la mecánica del depósito del aceite en los contenedores actualmente existentes puede generar derramas involuntarias.

Eztabaida bukatu, eta mozio

Finalizado el debate y sometida la

transakzionatua bozkatu da: zinegotzi guztiek onetsi dute.

Moción transaccionada a votación es aprobada por la totalidad de los Concejales.

Horrenbestez, honako hau erabaki da aho batez:

En consecuencia, se acordó por unanimidad:

"Getxoko Udalbatzak Etxeko Olio Erabilia Birziklatzeko Zerbitzuaren ezarpena aztertzea erabaki du, horretarako edukiontziak instalatuta edo aukerako beste edozein sistema erabilita".

"El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda el estudio de implantación de un Servicio de Recogida de Aceite Doméstico Usado mediante la instalación de contenedores habilitados para este fin o cualquier otro sistema alternativo"

Ricardo Villanueva joan egin da, eta ez da itzuliko bilkurara.

Ricardo Villanueva se ausenta definitivamente de la sesión.

**203.- UDAL TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA, METROA LURPERATZEKO OBREN JARRAIPENEKO INFORMAZIO BATZORDE BEREZIA ERATZEARI BURUZKOA.**

**203º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/CONSTITUCIÓN DE UNA COMISIÓN INFORMATIVA ESPECIAL DE SEGUIMIENTO DE LAS OBRAS DEL SOTERRAMIENTO DEL METRO.**

Luis Almansak mozioa irakurri du.

Luis Almansa da lectura a la Moción de referencia.

Marisa Arruek jakinarazi du mozioaren aldeko botoa emango duela, eta ondo iruditzen zaiola herritarrek batzorde horretan parte hartzea, are gehiago EAJk luze atzeratu duen eta Andra Mari hainbat modutan —eremua betetzeko proposatu zuen 8.000 etxebizitzako hirigintza proiektua barne— kaltetu duen obra baten jarraipena egiteko baldin bada. Gomutarazi du metroa lurperatzeko

Marisa Arrue indica que el grupo Popular va a apoyar la Moción y valora positivamente la participación ciudadana en dicha comisión, y más en este caso que se trata del seguimiento de una obra largamente demorada por el PNV, que ha castigado a la zona de Andra Mari de diversas maneras, y también con la propuesta que realizó de un proyecto urbanístico de 8.000 viviendas para colmatar la zona.

lanak behin eta berriz atzeratu direla, eta, nahiz eta badirudien hasiak direla, azkenean lanak atzeratuta eta hasieran pentsatutakoa baino bi aldiz handiagoa den kostuarekin amaituko direla. Nabarmendu du, batzordean talde eta herritar guztiek parte hartuta, haien ekarpenen bidez hobetu ere egin daitezkeela hamahiru urtez atzeratu den proiektu honetan proiektaturiko lanak.

Recuerda los repetidos atrasos de las obras de soterramiento, y aunque parece que las obras se han iniciado, estas van a llegar con retraso y con un coste que duplica al inicialmente contemplado. Insiste en que la participación en la Comisión de todos los grupos y todos los vecinos también puede mejorar las obras proyectadas con las aportaciones de este proyecto que se ha demorado más de trece años.

Iñaki Urkizak jakinarazi du mozioaren aurka bozkatuko dutela, badagoelako obren arloan eskumena duen batzorde arrunt bat, eta halako batzordeetan batzordeburuak herritarrak gonbida ditzakeelako, aztertuko diren lanen arabera. Halaber, ez du ulertzen zergatik sortu behar den batzorde berezi bat lan horien jarraipena egiteko eta ez garrantzizko beste lan batzuena egiteko, hala nola Getxo Antzokiko lanena. Bukatzeko, esan du batzordea sortzeak gastu handiagoak ekarriko lituzkeela, eta hori ez datorrela bat zorroztasun ekonomikoko irizpideekin.

El Sr. Urkiza indica que van a rechazar la Moción ya que existe una comisión ordinaria competente en materia de obras y además en estas Comisiones el Presidente puede invitar a los vecinos en función de los temas que se traten. Tampoco entiende la postura de crear una Comisión especial para seguimiento de esta obra, y no de otras obras importantes como la del Getxo Antzokia. Finaliza manifestando que la creación de una comisión generaría mayores gastos que va en contra de los criterios de austeridad.

Joseba Arregik azaldu du metroa lurperatzeko lanen aurrekontua gehitu egin dela herritarrek eskatu dituzten hobekuntzak ere egitearren. Gomutarazi du, orobat, metroaren eskumena ez dela Udalarena, eta horregatik ez zaiola zentzuzkoa iruditzen batzorde berezia. Gogora ekarri du gobernu taldeak lortu zuela Bizkaiko Garraio Partzuergoak laguntzeko eta erreklamazioak jasotzeko bulego egonkor bat ipin zezan, eta bulego horrek eraginkortasunez diharduela. Haren ustez, eraginkortasun horren zioa datza kaltetuak, aurkeztu nahi dituen kexak aurkezteko, eskumena duen administraziora zuzenean jotzean, eta ez da bidezkoa Udalak bere

El Sr. Arregi indica que el presupuesto de las obras de soterramiento se ha incrementado con motivo de incorporar mejoras que han sido solicitadas también por los vecinos. Recuerda también que la competencia del Metro no es municipal, por lo que no ve razonable una comisión especial. Recuerda que el equipo de Gobierno consiguió del Consorcio de Transportes de Bizkaia la implantación permanente de una Oficina de Atención y Reclamaciones que funciona eficazmente, y cree que la eficiencia viene de que el afectado vaya a la administración competente para resolver las quejas que plantea y no es lógico que el Ayuntamiento se erija en gestor de reclamaciones en cuestiones

eskumenekoak ez diren arazoei buruzko erreklamazioak kudeatzen has dadin. Era berean, azaldu du batzorde arruntak ere ireki izan direla herritarrek parte hartzeko, eta, areago, beste kasu batzuetan batzorde bereziak eratu direla beharrezkoa izan denean, hala nola uholdeen, antenei buruzko lan taldeen eta abarren kasuan; horregatik, orain diren batzordeak nahikoak direla uste du, une jakin batzuetan herritarrek parte hartzea ere ahalbide daitekeelarik.

en las que no es competente. Manifiesta también que en comisiones ordinarias se ha abierto también la participación a los vecinos, e incluso se han generado en otros casos, cuando ha sido necesario, comisiones especiales, como en el caso de inundaciones, grupos de trabajo de antenas, etc. por lo que son suficientes las comisiones existentes en este momento, en las que se puede habilitar incluso la participación vecinal en momentos concretos.

Luis Almansak jakinarazi du talde sozialistak ez duela onartzen batzorde arrunt batera desbideratzeko proposamena, eta azaldu du gobernu taldeak emandako arrazoia Udalaren eskumena ez izatea dela, baina, haren ustez, Gobela ibaiaren ibilgua hobetzea ere ez dela udal eskumena, eta hori bai bideratzen dela batzorde berezi baten bidez, gobernu taldeak sustaturiko batzorde baten bidez, hain zuzen. Aditzera eman du mozioa aurkeztu dela herritarrek lan horiekin senperrak eta bi pasatzen ari direla sentitzen dutelako. Hori zela eta, gobernu taldearengana jo zuten, eta urriaren 1ean haiekin bildu ziren, eta bileratik kamusatuta atera ziren. Horregatik talde sozialistarengana jo zuten, eta, egoera horren aurrean, talde sozialistak mozioa aurkeztu du, lanak hasteko moduagatik, segurtasun neurrien faltagatik, eta ehunka urteko haritzak bota izanagatik herritarrek egin dituzten kritikak bere eginda, hori, gainera, Udalak esku hartu gabe gertatu delarik, nahiz eta jarduera horiek, askotan, udal baimena behar zuten.

El Sr. Almansa indica que el grupo Socialista no admite la propuesta de desviar a una comisión ordinaria, y explica que la razón que presenta el equipo de Gobierno es que no se trata de una competencia municipal, pero tampoco es, en opinión del Sr. Almansa de competencia municipal la mejora del cauce del rio Gobela y esto si se tramita en una comisión especial, comisión creada a instancias del propio equipo de Gobierno. Indica que la moción se presenta porque los vecinos sienten que están viviendo un calvario con las obras, y ante ello recurrieron al equipo de Gobierno, y se reunieron con ellos el 1 de octubre, y salieron decepcionados de dicha reunión y por ello recurrieron al grupo Socialista, y ante esta situación el grupo Socialista ha presentado la moción, asumiendo las críticas de los vecinos sobre la forma en que se han iniciado las obras, la falta de medidas de seguridad en las obras, que se hayan derribado robles centenarios, y todo ello además sin que el Ayuntamiento haya actuado, pese a que muchas veces esas actuaciones requerirían licencia municipal.

Mozioa bozkatu da, eta hau izan da emaitza: aldeko 13 boto (PSE-EE eta PP), aurkako 11 boto (EAJ eta EB/B).

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PSE-EE y PP, y 11

en contra del PNV y EB/B.

Horrenbestez, honako hau erabaki da gehiengoz:

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"Metroa lurperatzeko obren jarraipeneko informazio batzorde berezia eratzea", 2008ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran azter eta bozka dadin.

"Constituir una Comisión Informativa Especial de Seguimiento de las Obras del Soterramiento del Metro", para que sea debatida y votada en la sesión plenaria del próximo día 28 de noviembre de 2008.

JUSTIFIKAZIOA: Auzokideak hamarkada batez mobilizatu eta gero, azkenik hasi dira lanak Maidagan kaleko legez kanpoko pasagunea kentzeko eta Iberberango aldean geltoki berria egiteko.

JUSTIFICACIÓN: Después de más de una década de movilizaciones vecinales, por fin se han iniciado las obras para la supresión de ilegal paso a nivel de la calle Maidagan y la construcción de una nueva estación en la zona de Iberberango.

Aurrez ikusitakoaren arabera, lanok bi urte baino gehiago iraungo dute. Lanak metro zerbitzuarekin bateratzeko moduan egingo dira, eta, horretarako, aldi baterako saihesbideak ezarri beharko dira.

Estas obras tienen prevista una duración de algo más de dos años. La ejecución de las obras se hace compatible con el servicio de Metro, para lo que habrá que habilitar desvíos provisionales.

Esan dugunez, lanak hasi berriak dira, eta hamaika eragozpen eta kalte eragin dizkiete inguruko herritarrei.

Como decimos las obras acaban de empezar ocasionando un sin fin de molestias y perjuicios a los vecinos de la zona.

Hasi berritan eragozpen eta kalte horiek eragin dituzten lan batzuek, bi urte baino gehiago iraungo dutela kontuan hartuta, Maidagan kaleko zirkulazioa eteten jarraitzen dutenean eta Beato Domingo Iturrate kalean eragina dutenean, egoera larriagoa eta arazotsuagoa izan daiteke.

Estas molestias y perjuicios de unas obras que acaban de empezar, y que tendrán una duración de mas de dos años, cuando continúen cortando el tránsito por la calle Maidagan y afecte a la calle Beato Domingo Iturrate, la situación puede ser más crítica y conflictiva.

Denok dakigu halako lan handiek eragozpenak sortzen dituztela, baina eragozpenok murriztu egin daitezke, eta hobeto eraman, baldin lanak ondo planifikatzen badira, eta baldin lanak egiten ari den enpresak kaltetutako

Todos somos conscientes de que unas obras de esta envergadura generan molestias, pero dichas molestias pueden ser reducidas y soportadas mejor con una buena planificación de las obras, una estrecha interlocución de

auzokideekin, Udalarekin eta Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin harreman estua badu.

la empresa que las está ejecutando con los vecinos afectados, el Ayuntamiento y el Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Hori dela eta, Andra Mariko auzokideen iritzia geure eginda, uste dugu beharrezkoa dela sortzea biltzeko esparru bat, herritarrek zuzenean parte hartzeko eta elkarrizketan aritzeko esparru egonkor eta iraunkor bat, lanek eragindako auzokideen kexak eta iradokizunak bideratzeko, denen artean konponbide eta zuzentzeko neurri egokienak bilatzearren.

Por ello, recogiendo el sentir de los vecinos de Andra Mari, creemos necesario crear un marco de encuentro de participación ciudadana directa, un marco de diálogo estable y permanente que encauce las quejas y sugerencias de los vecinos afectados por las obras, para entre todos, buscar las soluciones y medidas correctoras más idóneas.

Hartara, "Metroa lurperatzeko obren jarraipeneko Informazio Batzorde Berezia" eratzea proposatzen dugu, antenei eta uholdeei buruzko informazio batzorde berezien tankerakoa, Udaleko talde politikoek, eragindako auzokideen taldeek eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak parte hartuta.

Por ello, planteamos la constitución de una "Comisión Informativa Especial de Seguimiento de las Obras de Soterramiento del Metro", al estilo de las comisiones informativas especiales de antenas e inundaciones, con participación de los Grupos Políticos Municipales, las agrupaciones de vecinos afectados, y el Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Hortaz, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

En consecuencia planteamos la siguiente propuesta de, acuerdo:

1. Getxoko Udalbatzak, Toki Erakundeen Antolakuntzaren, Jardunbidearen eta Erregimen Juridikoaren Arautegiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 124.2 artikuluari jarraituz, Metroa lurperatzeko obren jarraipeneko Informazio Batzorde Berezia" eratzea erabaki du.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo, de conformidad con el artículo 124.2, y concordantes del R.D. 2568/1986, de 28 de noviembre, del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, acuerda constituir una "Comisión Informativa Especial de Seguimiento de las Obras de Soterramiento del Metro"

2. Hirigintzako Informazio Batzordeak osatuko du informazio batzorde berezi hori, eta hartan honako hauek parte hartuko dute: udal teknikariek, eragindako auzokideen taldeek, eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak, bai eta

2. Dicha Comisión Informativa Especial estará compuesta por la Comisión Informativa de Urbanismo, y en la que participarán, los técnicos municipales, las Agrupaciones vecinales afectadas, y el Consorcio de Transportes de Bizkaia,

beste erakunde publiko, talde edo pertsona batzuek ere, beharrezkotzat joz gero.

y otros organismos públicos, colectivo o personas que se consideren.

3. Batzorde horrek 2008ko abenduan ekingo die bere lanei, lan egutegi bat osatzeko, esleitutako zeregina ezin zurituzko eran atzera ez dadin".

3. Dicha Comisión iniciará sus trabajos en el mes de diciembre de 2008 elaborando un calendario de trabajo con el fin de no demorar injustificadamente la labor encomendada".

**204.- UDAL TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI PORTU ZAHARREKO ORUBEA, LEHEN MAILAKO ITSAS AQUARIUM BATERAKO BALIZKO KOKAPEN GISA, ESKAINTZEARI BURUZKOA.**

**204º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/OFRECIMIENTO A LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA DEL SOLAR DEL PUERTO VIEJO COMO POSIBLE UBICACIÓN DE UN AQUARIUM MARINO DE PRIMER NIVEL.**

José Luis Cámarak mozioa irakurri du.

José Luis Cámara da lectura a la Moción de referencia.

Eduardo Andradek transakzio zuzenketa bat proposatzen du, proiektu hori gauzatzen aurreratzearren. Zuzenketak hau dio: Justifikazioari puntu hau gehitzea: "Era berean, Getxoko talde honek Batzar Nagusietako Talde Sozialistari eskatuko dio babesa eman diezaiola Alderdi Popularrak Aldundiko Aurrekontu Orokorrei aurkeztu dien zuzenketari, 500.000 euroko kontu sail bat gehitzeko, kanpo abran akuario bat kokatzeari buruzko azterlanak egitearren.

El Sr. Andrade plantea una enmienda transaccional que justifica en orden a avanzar en la ejecución de dicho proyecto. Dicha enmienda de adición dice lo siguiente: Añadir a la justificación el siguiente punto: "Asimismo, desde nuestro grupo municipal en Getxo vamos a solicitar a nuestro Grupo Socialista en Juntas Generales para que apoye la enmienda que el Partido Popular ha presentado a los Presupuestos Generales de la Diputación en el sentido de incorporar una partida de 500.000 € para el desarrollo de los estudios de implantación de un aquarium en el Abra Exterior".

Luis Almansak zuzenketa onartu du.

El Sr. Almansa Almansa acepta la enmienda.

Iñaki Urkizak argitu du Valentziako akuarioak aipatu diren 8.000 metro horiek baino askozaz gehiago hartzen dituela, eta horregatik zalantzak dituela konparatzeko moduko adibidea den.

El Sr. Urkiza indica que el aquarium de Valencia ocupa mucho más que los 8.000 metros que se manifiestan, por lo cual tiene dudas de si son ejemplos comparables.

José Luis Cámarak adierazi du, edozelan ere, Portu Zaharrean 17.705 metro daudela, eta, beharrezkoa izanez gero, itsasoari tokia hartu ahal zaiola.

El Sr. Cámara indica que, en todo caso, en el Puerto Viejo hay 17.705 metros, y que si es necesario se puede avanzar ganando terrenos al mar.

Mozioa bozkatu da, onartutako zuzenketa gehituta. Hau izan da emaitza: aldeko 13 boto (PP eta PSE-EE), aurkako boto bat (EB/B) eta 10 abstentzio (EAJ).

Sometida la Moción a votación con la adición de la enmienda admitida obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PP y PSE-EE y 1 en contra de EB/B y 10 abstenciones del PNV.

Horrenbestez, honako hau erabaki da gehiengoz:

En consecuencia, se acordó por mayoría:

"JUSTIFIKAZIOA: Urriaren 13an, Bizkaiko Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeak onetsi egin zuen, aldeko 11 botorekin eta abstentzio batekin, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako arauz besteko proposamen bat, Bizkaiko Foru Aldundiak "azter dezan Bilboko itsasadarraren abran lehen mailako itsas akuarioa sortzeko aukera, Espainiako eta Europako beste leku batzuetan, hala nola Valentzian eta Arroxelan, akuarioekin izan dituzten esperientzietan oinarrituta, eta azterketa horren emaitzen arabera, hala badagokio, halako proiektua susta dezan."

"JUSTIFICACIÓN: El pasado 13 de octubre en la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales de Bizkaia, se aprobó por 11 votos a favor y una abstención, la Proposición No de Norma presentada por el Grupo Popular Vizcaíno, relativa a que la Diputación Foral de Bizkaia "estudie la viabilidad de crear en el Abra de la Ría de Bilbao un nuevo aquarium marino de primer nivel, en base a las experiencias recientes de los aquarium existentes en otros lugares de España y Europa, como Valencia y la Rochelle, y en base a los resultados del estudio en su caso impulse dicho proyecto."

Talde guztien iritzia izan da akuario handien mota horrek arrakasta izango duela —Valentziako akuario ozeanografikoa edo Arroxelakoa kasu—, bai halakoak dauzkaten udalerriarentzako diru errentagarritasunaren aldetik bai sortzen diren lanpostuen aldetik,

Todos los Grupos estuvieron de acuerdo del éxito de este tipo de grandes acuarios, como el oceanográfico de Valencia o el de la Rochelle, tanto desde la vertiente de la rentabilidad económica que generan para el municipio en el que se asienta, como desde los puestos de trabajo que

lurraldean dauden beste azpiegitura batzuen osagarri izateaz gain.

Onetsitako proposamenaren arabera, erreferentziatzat har daitezkeen nazioarteko akuarioek 4.000 metro koadrotik 8.000ra bitarte hartzen dute, eta bisitaldiak ordubetetik bi ordura bitartekoak izaten dira. Halako instalazioek lanpostuak sortzen dituzte, zientziazko eta unibertsitateko ikerlanak egiteko balio izateaz gain.

Gure udalerrian halako azpiegitura bat kokatzeko aukera oso garrantzitsua da. Getxok dagokion maila lortuko luke, Bilboko Metropolialdeko bigarren udalerria izanda, Espainia osoan nahiz nazioartean ezagutuko lukete turismoaren aldetik, eta udalerriarentzako aberastasuna sortuko luke.

Halako azpiegitura bat abran kokatzeko lekurik egokiena, zalantzarik gabe, Algortako Portu Zaharrean itsasoari 1950eko hamarkadaren bukaeran betelanez kendu zitzaion eremua da: 17.705 metro koadroko azalera du. Horrela, betelan horrek erabilera duina eta bere jatorriari dagokiona izango luke.

Era berean, Getxoko talde honek Batzar Nagusietako Talde Sozialistari eskatuko dio babesa eman diezaiola Alderdi Popularrak Aldundiko Aurrekontu Orokorrei aurkeztu dien zuzenketari, 500.000 euroko kontu sail bat gehitzeko, kanpo abran akuario bat kokatzeari buruzko azterlanak egitearren.

generan, además del carácter complementario de otro tipo de infraestructuras integrados en el territorio.

Los acuarios internacionales que pueden servir de referencia, según se desprende la proposición aprobada ocupan entre 4.000 y 8.000 metros cuadrados y las visitas oscilan entre una y dos horas, siendo estas instalaciones fuentes de generación de empleo además de servir para estudios científicos y universitarios.

La posible implantación de una infraestructura de esas características en nuestro municipio sería de suma importancia. Getxo adquiriría la relevancia que le corresponde como segundo municipio más importante del Área Metropolitana del Gran Bilbao, lograría una proyección turística nacional e internacional de primer orden y generaría riqueza para el municipio.

La ubicación idónea de una infraestructura de tipo en el Abra, sin lugar a dudas es el terreno ganado al mar con el relleno que se realizó en el Puerto Viejo de Algorta a finales de la década de los cincuenta que tiene una superficie de 17.705 metros cuadrados. De esta manera el relleno tendría un uso digno y adecuado a su procedencia.

Asimismo, desde nuestro grupo municipal en Getxo vamos a solicitar a nuestro Grupo Socialista en Juntas Generales para que apoye la enmienda que el Partido Popular ha presentado a los Presupuestos Generales de la Diputación en el sentido de incorporar una partida de 500.000 € para el desarrollo de los estudios de implantación de un aquarium en el

Abra Exterior.

Azaldutako guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten diogu Udalbatzari:

Por lo expuesto, se plantea al Ayuntamiento Pleno la Siguiente propuesta de acuerdo:

1. Getxoko Udalbatzak erabaki du Bizkaiko Foru Aldundiari eskaintzea Algortako Portu zaharrean itsasoari kendutako eremua, kontuan izan dezan abran lehen mailako itsas akuario bat kokatzeari buruz egingo duen bideragarritasun azterlanean.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda ofrecer a la Diputación Foral de Bizkaia el terreno ganado al mar en el Puerto Viejo de Algorta para que lo tenga en cuenta en el estudio de viabilidad que va a realizar referente a la ubicación en el Abra de un aquarium marino de primer nivel.

2. Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkide taldeei jakinaraztea.”.

2. Comunicar el presente acuerdo al Diputado General de Bizkaia y a los Grupos Junteros de las Juntas Generales de Bizkaia”.

**205.- UDAL TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA, IBERBERANGOKO METROKO ETORKIZUNEKO GELTOKIAREN IZENA GETXOKOAZ ALDATZEKO PROPOSAMENARI BURUZKOA.**

**205º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/PROPUESTA DE CAMBIO DE NOMBRE DE LA FUTURA ESTACIÓN DEL METRO DE IBERBERANGO POR EL DE GETXO.**

Almansa jaunak hurrengo mozioa irakurri du:

El Sr. Almansa da lectura a la siguiente Moción:

“JUSTIFIKAZIOA

Getxoko zimenduak inarrosi ziren, bada, 1995. urteko azaroaren 11aren11etan, Metroak, bere lehenengo bidaian, aurrera jarraitu zuenean geltoki zaharrari kasurik egin gabe. Auzokoak txundituta gelditu ziren, askok tokia bisitatu zuten gertaera sinestezina bere begiz ikusteko. Eta ez zegoen arrazoirik sinesgaiztasun horretarako: batzuek, errealistenek, fatalistenek edo informazio handien

“JUSTIFICACIÓN

